



**2017KO UZTAILAREN 14KO  
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamazazpiko uztailaren hamalauan, arratsaldeko ordu bi eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaraturako zinegotziak honako hauek dira: Ane Irastortza Izagirre, Aitor Altuna Oiarbide, Joseba Imanol Aran Barandiaran eta Marian Zufiria Apeztegia.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

**I.- AURREKO AKTA.-**

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2017ko ekainaren 30ean egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

**II.- FAKTURAK.-**

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2017ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 63 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, HOGEITA HAMASEI MILA BERREHUN ETA HOGEITA HAMAZAZPI EURO ETA HOGEITA LAU ZENTIMO (36.237,24 €)takoa onartzea erabakitzen da.

**III.- GIPUZKOAKO EROSKETEN ZENTRALAREN BIDEZKO KONTRATAZIOA.-**


**Telefono bidezko komunikazioak.-**

Diputatuen Kontseiluaren 2011ko ekainaren 21ean jasotako eskuordetzaz baliatuz, Foru Administrazioiko eta Funtzio Publikoko foru diputatuak 2017ko martxoaren 28ko foru aginduaren bitartez, Euskaltel S.A. (IFZ.:A48766695) enpresarekin Foru Kontratazioen Zentralaren bidez telefono bidezko komunikazioak zerbitzua emateko esparru akordioa (X17004) burutzea erabaki zen.

Lazkaoko Udalari dagokio, Foru Kontratazio Zentralak tramitatutako espedienteari atxikia dagoen erakundea den aldetik, eta zerbitzua interesatzen zaion neurrian, 2011ko otsailaren 22ko 3/2011 Foru Dekretuaren 6. artikularekin arabera, esparru akordiotik eratorritako kontratua esleitzea, formalizatzea eta gastua baimentzea.

Behin esparru akordioa izenpetu ondoren, zerbitzuburuak, 2017ko uztailaren 13an emandako txostenaren arabera proposatu du telefono bidezko komunikazioak zerbitzua erabiltzeko beharra dela eta, esparru akordioa burutzea erabaki den enpresa berari esleitzea eta hala formalizatzea.

Lazkaoko Udalak izandako telefono bidezko komunikazioen zerbitzuen kontsumo zenbatetsia kontuan izanik, gutxi gorabehera, urteko lau mila laurehun eta hirurogeita bost euro eta hogeita zortzi zentimo (4.465,28 €)ko gastua ateratzen da, BEZik gabe.



Gastuak segidako traktu izaera iraunkorra du, konpromiso kreditu gaiari dagokion finantza eta aurrekontu xedapenen ondorioetarako.

Hori dela eta, 2011ko azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaz onartutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 198. artikuluari jarraituz, bidezkoa da eratorritako kontratua Euskaltel S.A. enpresari esleitzea, izenpetutako esparru akordioaren ondorioetan ezarritako baldintzetan.

Ondorioz, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako akordioak onartzen ditu:

LEHENENGO.- "Foru Kontratazio Zentralaren bitartez telefono bidezko komunikazioak zerbitzua esparru akordiotik" eratorritako kontratua (X17004) Euskaltel S.A. enpresari (IFZ.:A48766695) esleitzea, esparru akordioa burutzea erabaki den baldintzetan. Akordioaren oinarritzko atala da harekin batera doan eskeintza ekonomikoa, 2017ko maiatzaren 8-koa, bere espedientean dagoena.

BIGARREN.- Euskaltel S.A., N.I.F.:A48766695, enpresaren alde baimentzea eta xedatzea aurtengo ekitaldiari dagokion gastua, udal aurrekontuan, funtzional ezberdinetan, telefono bidezko komunikazioen kontsumoen gastua jasotzen duten kontusailen kargura.

HIRUGARREN.- Enpresa esleipendunarekin kontratua formalizatzea.

#### IV.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartzen ditu:

##### Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 17-00-06 zbk.dun esped.: zerbitzuan alta ematea 2017ko ekainaren 29tik, astean 2 ordu, etxeko garbiketarako egiten laguntzeko. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %15 izango da.

##### Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-

- 17-01-004 zbk.dun esped.: etxebizitzaren alokairu gastuetarako hilean 250 € ematea apiriletik ekainera eta mantentze gastuetarako hilean 92,5 € ematea, apiriletik ekainera. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
- 17-01-010 zbk.dun esped.: etxebizitzaren alokairu gastuetarako hilean 125 € ematea uztailetik abendura eta mantentze gastuetarako hilean 46,25 € ematea, uztailetik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
- 09-01-007 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 74,93 € ematea, urtarriletik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %81 da.
- 16-01-005 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 92,5 € ematea, urtarriletik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.



## LAZKAOKO UDALA

- 15-01-011 zbk.dun esped.: etxebizitzaren alokairu eta mantentze gastuetarako laguntzatik baja ematea abuztutik, diru sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko eskubidea izateagatik.

### Esku hartze zerbitzua.-

- 17-15-01 zbk.dun esped.: hasierako ikerketa eta ebaluazio txostena egin ondoren eskuhartze plana egitea, hurrengo 6 hilabeteetan.

### Laguntzaile gazteei beka.-

- EIDER SAEZ IZQUIERDOri, abuztuan Tumaini erakundearekin Indonesiara egingo duen bidaia solidarioaren barruan, International Humanity Foundation proiektuan parte hartuko du eta bidaiarako diru laguntzaren %50 ematea, 740 €.
- JESSICA CANTERO PINTOri, irailaren 30etik urriaren 29ra Ambessa erakundearekin, Alkelba etxea proiektuan parte hartuko du eta bidaiarako diru laguntzaren %50 ematea, 813,24 €.

## V.- EUSKARA ETA HEZKUNTZAKO DIRU LAGUNTZAK .-

### San Benito Ikastola.-

2017ko mantentze gastu eta jardueren antolaketetarako, aurrekontuan aurreikusitako diru laguntzen %50 onartzea. Mantentze gastuetarako 16.995 € eta jardueretako 11.330 €.

## VI.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko hirurak bederatzi gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.



LAZKAOKO  
UDALA